**665/2020 EBAZPENA, DONOSTIALDEKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI GERENTEARENA, ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ONARTZEN DUENA, ERRADIODIAGNOSTIKOKO INTERBENTZIONISTA ATALBURU LANPOSTUA LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO**

## AURREKARIAK

**Lehenengoa.-** Zuzendaritza Gerentzia honen urriaren 24ko 2152/2019 Ebazpen bidez, deialdi publikoa iragarri zen, erakunde honetako Erradiodiagnostikoko Interbentzionista atalburu lanpostua lehiaketa bidez betetzeko (2020ko otsailaren 14ko 31 EHAAn eta 2020ko otsailaren 12ko 37 BOEn argitaratua).

**Bigarrena.-** Aipatutako ebazpenaren 3. oinarriak zera ezartzen zuen: eskabideak aurkezteko epea hamabost egunekoa zela, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe hori 2020ko martxoaren 6an amaitu zen.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Bakarra.-** 2152/2019 Ebazpenaren 4. oinarriaren arabera, izena emateko epea amaitzen denean, zuzendaritza gerentziak ebazpen bidez, behin-behineko onartuen eta baztertuen zerrenda onartuko du, eta dagokionean, baztertu izanaren arrazoiak azalduko; era berean, erreklamazioak aurkezteko **hamar egun baliodun** izango dira, ebazpena Osakidetzako web orrian eta erakunde honetako intranetean argitaratzen den biharamunetik hasita.

Azaldutakoagatik, eta Osakidetzaren Estatutu Sozialetako 15.1.e artikuluak zuzendari gerenteoi ematen dizkigun eskumenez baliatuta (azaroaren 11ko 255/97 Dekretua, azaroaren 14ko 219. EHAAn argitaratua), eta lehiaketaren oinarriak betetzeko, honakoa

## EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.-** Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea, erakunde honetako Erradiodiagnostikoko Interbentzionista atalburu lanpostua lehiaketa bidez betetzeko prozesuaren barruan. Zerrenda eranskinean jasota dago.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau argitaratzea, Osakidetzako web orrian eta erakunde honetako intranetean.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Ebazpen honen kontra erreklamazioa jarri ahal da, Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerenteari zuzendua. Izapide hau egiteko hamar eguneko epea egongo da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostian, 2020ko apirilaren 3an

ZUZENDARI GERENTEA
E. Pertsonaleko zuzendaria
(53/2019 Ebazpena, urtarrilaen 24koa)

Osakidetza
DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA
PERTSONALEKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAL

Izpta.: **Esther LITAGO SOLA**

# ERANSKINA

**LANPOSTUA:** Erradiodiagnostikoko Interbentzionista

## BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

**Onartuak:** Jose Angel LARREA PEÑA

**Baztertuak:** Inor ez

Donostian, 2020ko apirilaren 3an

Osakidetza
DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA
PERTSONALEKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAL

ZUZENDARI GERENTEA
E. Pertsonaleko zuzendaria
(53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa)

Izpta.: **Esther LITAGO SOLA**